



## OINARRIZKO LANBIDE HEZIKETAKO, ERDI MAILAKO ETA GOI MAILAKO ZIKLOETAKO 2019-20 IKASTURTE ITXIERA

2020ko apirilaren 20ean, Lanbide Heziketako plangintza eta antolaketa zuzendariak ikasturte itxierari buruzko jarraibideak eta orientabideak zituen zirkular bat bidali zuen ikastetxeetara. **STEILAS**etik, zirkularra aztertuta, Lanbide Heziketako zuzendariari honako alegazioak/ekarpenak helarazi dizkiogu:

Zirkularra gaztelera hutsean bidali zuen. Urteak daramagu Administrazioak Lanbide Heziketan gaztelera lehenesten duela salatzen.

Administrazioak soilik ikastetxeko zuzendariei bidali die zirriborroa, sindikatuei ez. **STEILAS**etik Lanbide Heziketako zuzendaritza berriro ere era gerentzialean jokatu izana salatu nahi dugu.

Madrilen, martxoaren 24ean, MEFPk (Ministerio de Educación y FP) eta erkidegoetako arduradunek egindako bileraren berri baguen, LHko ikasturte amaiera nola egin adosteko. Bertan hartutako neurriak LHko sailburuordetzatik behin betikoz nola ezarriko diren jakiteko oraindik itxoiten ari gara sindikatu, irakasle eta baita ikasle eta hauen familiak.

Ez dugu ulertzen, zikloetako Errege Dekretuetan (ED) datozen gutxiengo orduei zertan Goi mailako proiektu moduluaren 25 orduak gehitu behar zaizkien Oinarrizko eta Erdi Mailako zikloei.

LP+Proiektu modulu berria ezartzea salbuespen egoera honetan, irtenbide egokia izan daitekeela uste dugu, beti ere ondorengo ordu kopuruak errespetatuz:

- Oinarrizko Lanbide Heziketan "LP + proiektua"; 130 ordu.
- Erdi Mailako Lanbide Heziketan "LP + proiektua"; 220 ordu.
- Goi Mailako Lanbide Heziketan "LP + proiektua"; 245 ordu.

Ikasleen artean dagoen arrakala teknologikoa kontutan hartuta, **STEILAS**en ustez egoera hori pairatzen duten ikasleen promoziorako 3. hiruhilabetekoan etxetik egindako lana ez da erabakigarria izan behar.

Azkenik, zirkularrak dio ikasleak hasiera batean datorren maiatzaren 4ean on-line moduan hasiko direla lanean. **STEILAS**ek martxoaren 16tik ikasle horiek FCT eta Duala lantzeko, nahiz eta on-line moduan, ez dutela aukerarik izan salatzen du.



[www.steilas.eus](http://www.steilas.eus)

Araba ☎ 945 14 11 04  
araba@steilas.eus

Bizkaia ☎ 944 10 02 98  
bizkaia@steilas.eus

Gipuzkoa ☎ 943 46 60 00  
gipuzkoa@steilas.eus

Nafarroa ☎ 948 21 23 55  
nafarroa@steilas.eus